


2013-2013ko  
Bizikidetza Planari  
Ekarpenak

Etxerat Elkarteak





## 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaz Planari ekarpenak

Etxerat Elkartea

Euskal Herria 2013ko iralaren 19an

# 1. Kokapen orokorra

“2013-2016ko bake eta bizikidetzeta plana”ren aurkezpen atalean, bi eginkizun nagusi egozten zaizkio plan honi: bakea behin betiko eta modu itzulezinean sendotzen laguntzea alde batetik, eta bizikidetzeta sozial eta politikoaren hobekuntza sustatzea bestetik.

Abiapuntu eta asmo horiekin bat egiten du Etxerat elkarteak, bere estatutuetan argi eta garbi adierazten den bezala. Hala ere, badira **plan honen abiapuntuan zein garapenean bat ez gatozen hainbat alderdi**, horregatik hain zuzen ere ekarpen gisa aurkezten dugu honako idatzia; denon ekarpenak kontuan hartuak izango direlakoan, eta arestian aipaturiko bake eta bizikidetzearuntz aurrepausuak eman ahalko ditugulakoan.

## Gatazka eta irtenbide politikoa

Lehenik eta behin bereziki kezkarria iruditzen zaigun zerbait aipatu beharrean gaude; plan guztiaren garapenean zehar zutabe izanik bereziki garrantzitsua eta **ezinbestekoa** iruditzen baitzaigu **berformulazioa**. Herri honetan erro politikoak dituen **gatazka bat** dago, gatazka politiko bat beraz, **bortizkeria adierazpen ezberdinak** izan dituen; euskal jendarte zabalean dagoen iritzia da hori, kultura politiko ezberdinekin identifikatzen den oinarri-sozial ezberdinen artean, alderdi politiko ezberdinen sigletatik haratago, **irtenbide politiko bat eman behar zaionaren ideia erabat errotua** dago.

Gatazkak eragin du **gure senide preso, iheslari eta deportatuak, horren ondorio** zuzen izatea, baita urte hauetan egondako hildakoak ere, eta beraz Elkarte bera gatazka horren ondorio ere bada. Askotarikoak eta ideologia ezberdinetakoak izanda ere gure elkarteak barnebiltzen dituen senideak, gure egoera eta gure senideena gatazka politiko baten ondorioz ematen dela iritzi amankomuna daukagu, batzen gaituen oinarritzko ideia da hau. Beraz, hau horrela izanik, **behar beharrezkoa ikusten dugu gatazkaren erroei irtenbide bat ematea benetan bake hori**

**atzeraezina bihurtu dadin;** izan ere, munduan barrena eman diren gatazka ezberdinek eta bertan parte hartu izan duten nazioarteko adituek ere zerbait erakutsi badigute zera da, gatazka batean erroei irtenbide bat eman ezean, berriz azalerratu egiten direla lehenago edo beranduago. Etxerat elkartetik, beraz, **konponbide politiko baten alde** egiten dugu, konponbide demokratiko baten alde, eta **behin beti-koa** izan behar duen konponbide baten alde; izan ere, ez dugu nahi gu bizitzen ari garen sufrimendua beste inork bizitzerik. Hori da **berme bakarra** gure senideak berri etxean izateko, eta horren alde lan egiten duten instituzioekin, eragile sozial eta politikoekin lan egiteko borondate eta konpromezua adierazi izan dugu sarritan.

## Egoeraren irakurketa partziala

Oinarrizko eta ezinbesteko ideia honek aldiz, talka egiten du **planean** egiten den, gure ustez **irakurketa erabat partzial eta desitxuratuarekin**. Planean errealtate-printzipio batzuk zehazten dira egoeraren diagnostikoa egiteko, eta abiapuntu gisa errealtatea aldatu denaren ideia azpimarratzen da, hobera aldatu ere. **Guk bat egiten dugu errealtatea aldatu denaren ideiarekin**, aukera berriak irekitzen dituenarekin, eta hori ona da. Hala ere, abiapuntu hau **edukiz bete ezean erabat azalekoa** da, ez du gatazkaren erroak konpontzearen aldeko hauturik egiten, ez du horren garrantzia azpimarratzen bake iraunkor bat eraiki nahi horretan, eta beraz **“de facto” gatazka politikoaren existentzia bera ukatzen du**.

## Aitortzarik gabeko bortizkeria

**Irakurketa honen bidez jendartea dagoeneko biolentziarik gabe bizi dela ondorioztatzen da, eta senideok, argi eta garbi daukagu hori ez dela horrela. Honekin ematen du dagoeneko bake egoera batean bizi garela, eta ez da horrela jendartearen zati batentzat, ez behintzat preso, errefuxiatu eta deportatuentzat, ez eta euren senideentzat. Izan ere, bortizkeria horrek herri honetako biztanle askoren egunerokoa eta errealtatea erabat baldintzatzen du. Irakurketa honek praktikan, **batzuen sufrimenduaren ukapena dakar bere baitan, eta beraz eskubideen urraketa guztiak ez onartzea. Argi dagoena zera da, ezin kalifika daitekeela etapa hau biolentziarik gabekoa, izatekotan ETAk eragindako biolentziarik gabekoa esan beharko litzateke.****

Are gehiago, guk pairatzen dugun salbuespenezko **espetxe politikak** azken garaiotan **okerrera** egin duela baieztatu dezakegu, hilabetero eskaintzen ditugun datuetan eta egindako balantzeetan ikus daitekeen bezala. Horretaz gain gure eguneroko

esperientziak ondokoa erakusten digu, herri honetan dagoen **sufrimenduaren parte batek** (gureak behinik behin) **ez duela aukerarik** (komunikabideak, instituzioak...) **bere egoeraren berri jendarteari emateko**, eskubideen urraketa horiek ez dutela ezagutuak izateko espaziorik; izan ere, guk eta gure senideek pairatzen duten egoera ezkutatua izan ohi da, edo eta itxuraldatua eta okerreña dena, **helburu politiko batzuen arabera zilegizatua sarritan**. Behar beharrezkoa ikusten dugu beraz **sufrimenduaren aitortza emateko, errealitate horren berri izatea aurrena, eskubide urratu guztiak jendarte osoak ezagutu ahal izatea**.

## Babes legala duten neurri urratzaileak

Baina gainera ez da ahatik eratoritzen **sufrimendu erabat bidegabe hori**; aitzitik, **nahita eragindakoa** da, era gordinenean gure senide preso, iheslari eta deportatuei era kontziente batean aplikatua, **zigor gehitu bezala**. Gure senide presoek aplikatzen zaien **salbuespenezko espetxe-politika**, eta euren oinarrizko eskubideak urratzen dituen, horren adibide garbia da; eta salbuespenezkoa diogu, aplikatzen zaien legeria, bizi-erregimena eta bizi-baldintzak eurei bakarrik aplikatzen zaizkielako sistematikoki. Planean ez da ageri eta gutxiago zehaztu egun zeintzuk diren sufrimendu horren pairatzaileak, zein egoeretan eman den, ez eta zerk eragiten duen sufrimendu hori. **Planean ez da jasotzen aplikatzen zaien espetxe politika hori giza eskubideen urratzailea dela bere baitan**, eta bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu. **Planak egungo legeriari erreferentzia** egiten dio denbora guztian, **abiapuntu eta muga bezala**, kontutan hartu gabe legeri hori bidezkoa ote den, eta beraz zilegia den eta eskubideak errespetatzen ote dituen. Horietako neurri askok **babes juridiko-legala badute** ere, eta beste batzuk zigorgabetasunaren babespean ematen badira ere, **bortizkeria da eta giza eskubideen urraketak ekartzen dituzte**. Gure senideek, eta ondorioz guk ere, zuzen-zuzenean eta modurik gordinen pairatzen dugu legeri horren aplikazioa, izugarrizko sufrimendua eragiten duelarik, erabat ez-zilegia eta bidegabekoa den sufrimendua, euskal jendarteak publikoki askotan salatu duen hori alegia. **Planak ez ditu jasotzen urraketa hauek** (ikus 2. puntua).

## Polarizazioan sakontzen duen terminologia

Bestetik, plana garatzean erabiltzen den terminologia dago, euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen **senide garen heinean erabat onartezina**, bizi-kidetzan aurrerapausoak eman nahi baditugu behintzat. Ikuspegi **partziala eta konnotazioz betea** erabiltzen du, **polarizazioan sakontzen duen planteamendu eta hizkuntza** erabiliz, eta berriz ere kontzeptualizazio horren bidez gatazkaren ukapena azpimarratuz. Hasteko, ez dago **terrorismo** hitzaren onartutako definizio bate-

ratu bat ere ez; baina hori hartzen du planak **ideia nagusizat egoeraren diagnostikoa egin eta aurrera begirako proposamenak egiteko**. Esan beharrik ez dago gure elkarte osatzen dugun familiarrontzat gure senideak ez direla terroristak, eta beraz ezin dugula ontzat eman terminologia horren erabilpena. Honen aurkakotasun bezala **“kontra-terrorismo ez-zilegia”** kokatzen da gainera; bere iharduera zilegiztatzen ez badu ere, bere sorrera justifikatzen duelarik hein handi batean, **horren arduradunak desagertarazten dituelarik praktikan**.

## Denontzat onargarria den kontzeptualizazioa ezinbestekoa

Adostasuna bilatzearen kontrakoa da polarizazioan sakontzen duen hizkuntza erabiltzea, **narratiba menperatzailean oinarritzen** dena; hau da, “gaiztoak” eta hauen aurka borrokatu behar izan zuten “gaiztoen kontrakoak”, nahiz eta batzuetan legezkotasunetik kanpo jokatu behar izan zuten. Benetan partekatua izatea nahi bada, parte hartzera deituak diren jendartearen sektore horiek bere egin beharko dute ibilbide hori, gutxienean ibilbidearen oinarritzko ideia eta proposamena; horretarako **ezinbestekoa da denok onargarritzat jotzen dugun kontzeptualizazio bat erabiltzea**, gutxiengo bat da elkarbizitzarako bidean aurrerapausoak emateko. **Ezberdinen artean begirunezko komunikazio espazio bat** eraikitzea oinarri-oinarritzkoa da adostasunak identifikatu ahal izateko, definitu eta proiektatu ahal izateko.

## Narratiba berri eta inklusiboa

**Beharrezkoa da beraz narratiba berri bat, inklusiboa, kontratu sozial berri bat azken batean**. Ez bada zerbait berria planteatzen, polarizazioan sakontzeko arriskua dago. Narratiba inklusibo horrek, aurrerantzean **bizi nahi dugun jendarte motarekin** dauka zerikusia. Iraganaren **konplexutasunaren erronkari egin behar zaio aurre**, ez da sinplifikatzera jo behar. Iraganaren ikuspegi ezberdinekin bizitzen ikasi beharko dugu, baina onargarriak diren gezurrak mugatu beharko dira. Iragana ez da “gaizto” eta “onen” istorio bat, gris asko dituen istorio bat baizik, **gertatutakoaren interpretazio ezberdinen onarpenetik hasi beharko delarik**.

## Oinarrizko joko-arauak denontzat

Gertakariak zehaztu ahal izateko beraz, **dimentsio sakon eta sozialetik** egin behar da, horretarako segurtasun minimo bat eta **oinarrizko askatasun batzuk behar-beharrezkoak** direlarik, giza eskubideen oinarrizko printzipioak kontuan hartuko dituenak, baina denon giza eskubideak, noski. Horrek bideratuko luke prozesu hori egin ahal izateko **oinarrizko joku-arau batzuk**, errealitatearen eta gertakarien **narratiba kolektiboak** posible egingo luketenak. Horretarako garrantzitsua da sufrimendua pairatzen dugunon artean **mailaketarik ez** egitea, bizi eta pairatu izan dugun eta egun pairatzen jarraitzen dugun hori **aitortzea** aurrena, bai jendartearen-gandik eta baita agintari eta instituzioengandik ere. Jasandakoaren biktimen mailaketarik ez da egin behar ez, ez minaren inongo sailkapenik zein konparaketarik; besterik gabe, jasandako sufrimendu hori, zein egun jasaten duguna aitortu behar da, hori da lehendabiziko pausua. Munduko beste leku batzuetan **sufrimenduaren berdintze morala** deitu izan dena, biktimen arteko parekatzerik gabe, baina egoera ezberdinak zein biktima ezberdinen gaiari heldu ahal izateko beharrezkoa den abiapuntua. Hau honela izanik, behar beharrezkoa ikusten dugu Etxeraten lehendabiziko pausua, egun ematen jarraitzen duten **Giza Eskubideen urraketa horiek bertan behera gelditzea**, eta beraz, horretarako beharrezkoak diren mekanismoak abian jartzea.

Ondorengo puntuetan giza eskubideen eremua aztertuko dugu guk bizi dugun errealitatetik abiatuta, geurea eta gure senideena hain zuzen ere. Hurrengo puntuan planaren ardatz eta ekimen zehatzen inguruan arituko gara, 6. eta 8. ekimenen inguruan; eta azkeneko puntuan ondorio batzuk gehitu ditugu.

## 2. Giza eskubideen urraketa guztiak

---

Euskal Herrian azken urteotan eman diren eta zoritxarrez ematen jarraitzen diren giza eskubideen **urraketatzat jotzen direnak oso ikuspegi partzialetik** zehazten dira, batzuen **ukapena** dakarrena bere baitan. Izan ere, planean kontuan hartzen direnak **bi kategorietan soilik** barnebiltzen dira: “terrorismoaren biktimak” eta “kontraterroismo ez zilegiaren biktimak”.

Aurreko puntuan esan dugun bezala, erabilitako terminologiak polarizazioan sakontzen du; baina hortik haratago ere, giza eskubideen urraketak pairatu dituztenak zehaztean erabat mugatu egiten du ikuspegia, errealitatea itxuraldatuz, jendarteak aspaldi **urraketen pairatzailetzat jotzen dituen pertsona pila baztertuz**. Zentzu horretan beraz, sozialki erabat onartua dagoen kontzientzia mailatik, oso atzean geratzen da honako plana.

Deportatu, iheslari eta preso senide eta lagunen elkarteak garen heinean, giza eskubideen urraketen eremu honetan **ekarpen garrantzitsua** egin beharrean gaude beraz. Bi norabidetan: alde batetik, gure senide errepresaliatuen eskubideen urraketei dagokienez; eta bestetik, senide izateagatik guk geuk pairatu behar izaten ditugunak modu zuzenean zein zeharkakoan.

Gure senideen sufrimendu eta eskubide-urraketei helduko diogu lehenik eta behin; egoera ezberdinak ematen direnez, atalka aztertuz nola ematen diren eta zer suposatzen duten.

### 2.1. Deportatuak eta iheslariak

Alde batetik, deportazioan eta deserrian dauden gure senideak daude. Ez da **inongo aipamenik** egiten haien egoeraren inguruan, eta are gutxiago egoera hauei irtenbidea emateko inongo proposamenik. Deportazioa eman zen garaietan, 80.hamarkadan, estatu askoren inplikazioa eman zen, erabat ilegala den prozedimenduak erabiliz; egun gure senide askok egoera horretan jarraitzen dute, deserrian, eta beraien herrira eskubide guztien jabe noiz bueltatzeko zain.

Deportatuak, presoek bezala, bere bizitza pribatuari nahiz bere aukera politikoei loturiko erabakietan eragiteko aukera galdu zuen. Presoen modura, deportatuak babesgabetasun osoko egoeran bizi ziren, bere etorkizun guztia,



frantziar eta espainiar estatuen erabakien menpe zen.

**Juridikoki** deportatua guztiz **babesgabeko egoeran** dago. Epaiketarik gabe, **defentsarako eskubiderik gabe** izan dira deportatuak epaituak eta, intoxikazioaren ondorioak jasan behar izan zituzten.

Babesgabetasun juridikoa da beraz, deportatuen egoera aztertzerakoan kontuan hartu beharreko puntuetariko bat. Audientzia Nazional espainiarreko sumarioetan agertzen ziren deportatu batzuk ez dute jarraipen berezirik jasan, espainiar justiziarentzat zigorraldia betetzeko modu bat baitzen deportazioa, nahiz eta oinarri juridikorik ez izan.

Nazioarteko maxima juridikoetariko bat "kondenatua izan arte inor ez da erruduna" da. Deportazioan, ordea, ez da erruztaturik egon eta, ondorioz, **ez zaizkie Nazioarteko eskubideak aplikatu**. Teorikoki botere judizial, exekutibo eta legislatibo independenteak dituen estatuaren eta hainbat komunikabiderengatik kondenatuak izan dira deportatuak.

Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpen Unibertsalaren arabera, pertsona orok epaiketa inpartziala izateko eta, **bere kondenak epeka definitua izateko eskubidea du**. Euskal deportatuen egoera ez da sekula epaiketa baten ondorio izan eta, bere kondenak amaigabeak izan dira ez baitute sekula beraien egoera noiz amaituko zen jakin ez eta ere, ondorioz, espainiar eta frantziar estatuek jasotzen duten errendentzioak izateko aukerarik izan. Adierazpen Unibertsalak pertsona orori **identitate baterako eskubidea** aitortzen dio. Kanporatuak izan ziren euskaldunek, ordea, ez zuten inongo pertsonalitate juridikorik eta, Sao Tome edo Kabo Berde moduko herrialdeetan ofizialki ere ez ziren existitzen, ez zeuden pertsona gisara katalogatuak ere.

Gatazka politikoaren ondorioz, gure ehunka senide eta lagun ihesean dira. Egoera ezberdinak dira iheslari politiko horien artean. **Asko ez dakigu non eta zer nolako egoeran bizi diren ere**. Benetan gogorra da norberaren seme-alabak, gurasoak, lehengusu, osaba izaba ala lagunak non eta nola diren ez jakitea ere. Ildo horretan esan behar dugu, egoera horren jakitun, eta, polizi interesak eta samina oraindik eta gehiago hedatzeko helburuarekin, zer nolako trikimailu ankerrak erabiltzen dituzten estatuek. Iheslarien heriotzen osteko izen dantzak horren erakusle izaten dira.

Baldintza gordinenetan, Euskal Herritik milaka kilometrotara, Uruguaien, Venezuelan, Panaman, Kuban, Mexikon, Belgikan, Cabo Verden, Sao Tomen, Portugalen eta beste hainbat herritan bizi diren edo bizi izan diren iheslariak ere baditugu. Senide horiek bizi **baldintza gordinenetan bizi dira**, gehienak inongo dokumentu legalik gabe, izen-abizen, nazionalitate eta herritartasunik gabe, batzuk osasun-aztertzea izateko aukerarik gabe, bizirauteko diru-iturririk gabe, eta denak balore oso ezberdinetako herri eta kulturetan, **hortze mugarik gabeko egunerokotasunean**, edozein unetan atxilotuak eta espainiar Estatura estraditatuak izateko arriskupean. Honen adibide garbia dugu, Iheslarien Kolektiboaren Miarritzeko ekitaldiaren testuinguruan emandako atxiloketak eta espainiaratuak izateko aukerak.

Badira ere **sorlekutik kanpo baina, Euskal Herrian**, Lapurdin, Zuberoan eta Behe Nafarroan bizi diren iheslariak. Hauen egoera ez da xamurragoa, 80ko hamarkadan euskaldunak deportatu zituen estatuak, egun, euroagindua erabiltzen baitu, besteak beste, gure senide iheslari politikoen aurka. Edozein unetan atxilotuak eta espetxeratuak izateko arriskuan bizi dira beraz.

Iheslari politikoen senide eta lagunek ere, **maitasuna eta elkartasuna adierazteko, milaka traba** gainditu behar izaten ditugu. Tokian tokiko errealitateetan murgildu behar izateari eta, bidaiek sortarazten dituzten arrisku eta gastu ekonomikoek aurre egin behar izateari, estatuen errepresioa gaineratu behar diogu. Hainbat senide eta lagun atxilotuak eta espetxeratuak, beraien kontuak blokeatuak... izan baitira gure senide iheslari politikoen ekonomikoki laguntzeagatik.

## 2.2. Presoak

Baina planean nola edo hala kontuan hartuak diren bakarrak gure senide presoak dira, euskal preso politikoak alegia. Espetxe-politika zehatz bat aplikatzen zaienak, **salbuespenezko espetxe-politika bat, erabat modu kontzientean krudelkeria eta ankerkeria handienarekin aplikatzen dena**. Salbuespenezko espetxe politika bati buruz hitz egiten dugu, kolektibo horren aurkako neurri berezi bat delako, beraiei bakarrik aplikatzen zaiena modu sistematikoan, segurtasunaren irizpidearekin inongo zerikusirik ez duena, eta noski, are gutxiago presoaren onurarekin edo espetxearen balizko bergizarteratze ideiarekin.

Gure senide presoek pairatzen duten salbuespenezko espetxe politikaren ondorioz, hauek dira euren eskubideak urratzeko erabiltzen diren neurri esanguratsuenak:

### 2.2.1 Sakabanaketa

Estatu ezberdinetako espetxeetan sakabanatuak daude gure senideak, bi isolamendu mota aplikatzen zaielarik:

#### 1.-Bakartze soziala:

Pertsona gisa garatu diren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik bereizten zaie. Sozialki bakartzeko mekanismo hauek erabiltzen dira:

1.) Bere inguru afektibo eta **familiarrarengandik urrun** dauden espetxeetara eramatea, maila kuantitatiboan bisiten murrizketak eragiten duena.

2.) **Bisita murriztuak.** Espetxe askotan senide zuzenen bisitak onartzen dira bakarrik. Lagunek bisita egin ahal izateko, Espetxe Instituzioetako Sekretaritzak Nagusiaren alde aurreko baimena behar da; erakunde honek arbitrarioki ematen edo ukatzen ditu baimenak, arrazoirik azaldu gabe edota inoiz argitu gabeko "segurtasun arrazoi"etan oinarriturik. Horretaz gain, sei hilabetero berriztu daitezkeen zerranda batera mugatzen dira bisitak egin ditzaketen lagunak. Frantzian aldiz, epailearen esku geratzen da baimena eman edo ez senide zein lagunei, modu arbitrarioan erabakitzen duelarik.

3.) **Bisitaren denbora mugatua.** Presoak gutxienez 20 minutuko bi bisitaren eskubidea du astero. Urruntasuna dela eta, asteroko 40 minututan pilatu daitezke bisita hauek. Presoa zigortua egonik, 10 minutura murrizten da bisitaren denbora.

4.) **Bisitaren baldintzak.** Beira lodi batek eta askotan burdinazko barroteek preso eta bisitaria bereizten dituzten lokutorio batean egiten dira bisitak. Hau da, bisita onartzen da baina ukatzen da kontaktu fisikoa. Sarritan gainera, elkarri entzuteko arazoak ere egiten dira. Estatu frantsesean, berriz, bisitak tarteko beira eta barroterik gabe izaten dira eta, ondorioz, kontaktua posiblea da.

5.) **Aurrez aurreko gisako bisita bereziak.** Hileroko bisita non kontaktu fisikoa ahalbidetzen den. Espetxe askotan ukatzen zaie bisita hau presoei eta onartzen dutenen kasutan baimena arbitrarioki ematen da eta edozein momentuan ukatu dezakete. Zientifikoki onartua dago denbora luzezko gorputz kontaktu ezak kalte fisiko zein psikikoak eragin ditzakeela. Estatu frantsesean aldiz, ez dago horrelako aukerarik espetxealdi prebentiboan behinik behin; beraz bikotearekin ere ez dute harreman intimorik izateko aukerarik.

6.) **Korrespondentziaren murrizketa.** Presondegi gehienetan presoek bi gutun soilik bidal dezakete astean. Edozein gisa, bai bidaltzen diren gutunak baita iristen direnak ere sistematikoki interbenitzen ditu espetxeak. Eta kasu askotan ez dira hartzaileen eskutara iristen. Eskutitzak euskaraz idazteketan itzulpenaren aitzakiaz atzeraldi luzeak jasango dituzte edo ez dira espetxetik aterako. Gauzak horrela, giza harremana mugatua eta intimitatetik at geratzen da. Mota politikoetako prentsa eta agerkariak mugatuak edo debekatuak daude, baita kaleko elkartasun ekimenen bat edo lemaren bat agertzen diren argazkiak ere.

7.) **Komunikazio mota guztien interbentzioa.** Bisitak, gutunak edo zenbait espetxetan egin daitezken 5 minututako telefono deiak, interbenituak daude. Bisitetako solasaldiak grabatzen dira eta gutunak irakurri eta fotokopiatzen dira. Komunikazio gabetasun argi baten aurrean gaude, non presoak mezu mugatuak jaso edo bidali behar dituen. Ez zaio onartzen komunikazioa pentsamendu edo sentimenduak etab. kanporatzeko bide gisa erabiltzea, ongi aski dakielako aipatzen duen guztia bere aurka erabil daitezkeela. Komunikazioa eta pertsonen arteko harremana pertsonaren oreka psikiko-emozionalaren zutoin garrantzitsuenetako bat da.

## 2.-Taldearen bakartzea:

Espetxe sakabanaketarekin gure senide presoek osatzen duten kolektiboa fisikoki zatitzen da, bere kideak azpitaldetan bereiziz eta azkenik banakako bereizketa sortuz. Neurri honen helburua taldearekiko atxikimendua puskatzea da, hau da, zigor sisteman bizirauteko defentsa mekanismoa ukitzen da, giza kohesioa izateaz gain kohesio politikoa dena kasu honetan.

Gisa honetan, bere jarrera, pentsaera eta balio sistema mantentzeak kualitatiboki eta kuantitatiboki koste izugarria eragingo dio presoari. Bakartzea eta espetxe urruntzea, **giza borondatearen eta identitate politikoaren suntsipena lortzeko abiatutako programa baten gauzatze kontziente bat da**. Pertsonaren pentsaerari, idealei, sinesmenei, fantasiari, bizitzari zuzendua dago. Helburu politikoa duen tortura zuria da, tortura azken batean.

1987an jartzen da indarrean euskal preso politikoen kolektiboaren sakabanaketa orokorra, 1989tik aurrera orokortzen delarik. Orduantxe hasten da fase berri honen bide luzea, non presoak Estatu Espainiarreko espetxe ezberdinetan barna talde txikitan barreiatzen hasten diren.

Espetxe bakoitzean normalean bost eta hamar arteko preso politiko azpitaldeetan biltzen dituzte. Eta hasieran azpitalde hori bateratua egongo zen arren, urteetan bizitako talde funtzionamenduaren koordenadak mantentzen zituztelarik, bigarren fase batean azpitalde txiki hauek espetxeko modulu ezberdinetan sakabanatuak suertatuko dira. Horrela, modulu bakoitzean bi-hiru lagun egongo dira gehiezez jota, bakoitza bere ziegan banandua.

Eta hauek dira gaur egun euskal preso politikoek bizitzen ari direna kilometroetan adierazita:

- **93** euskal preso Euskal Herritik **1000 eta 1.100** kilometrotara dauden espetxeetan
- **147** euskal preso Euskal Herritik **800 eta 1.000** kilometrotara dauden espetxeetan
- **113** euskal preso Euskal Herritik **600 eta 800** kilometrotara dauden espetxeetan
- **135** euskal preso Euskal Herritik **400 eta 600** kilometrotara dauden espetxeetan
- **80** euskal preso Euskal Herritik **400** kilometrotara dauden espetxeetan
- euskal preso bat Euskal Herritik **900** kilometrotara **konfinatua**
- **6** euskal preso Euskal Herritik urrun dauden **3** herrialdeetako espetxeetan

2013ko ekainaren 28ko datuak

Ugariak dira sakabanaketa politikarekin talka egiten duten nazioarteko eskubideen inguruko hitzarmenetan agertzen diren printzipio eta artikulua. Hona hemen horietako artikulua eta txosten batzuk:

- Nazio Batuen Erakundeak Delikuentearen Tratamendu eta Delituaren Prebentzioarako burututako Lehenengo Kongresuan presoek tratamendurako onartutako gutxiengo arauak, Ginebran 1955ean ospatutakoa, eta Batzorde Ekonomiko eta Sozialak onartutakoak 1957ko uztailaren 31ko 663C (XXIV) ebazpenaren eta 1977ko maiatzaren 13ko 2076 (LXII) ebazpenaren bidez:

*Nº79. Se velará particularmente por el mantenimiento y el mejoramiento de las relaciones entre el recluso y su familia, cuando éstas sean convenientes para ambas partes.*

*Nº 80. Se tendrá debidamente en cuenta, desde el principio del cumplimiento de la condena, el porvenir del recluso después de su liberación. Deberá alentarse al recluso para que mantenga o establezca relaciones con personas u organismos externos que puedan favorecer los intereses de su familia así como su propia readaptación social.*

- Principios básicos para el tratamiento de Reclusos Resolución 43/173 de 14 de diciembre de 1990 de la Asamblea General de Naciones Unidas 1990ko abenduaren 14ko Nazio Batuen Batzar Orokorrean, Presoek tratamendurako oinarriko Printzipioen arabera:

*1.- Todos los reclusos serán tratados con el respeto que merecen su dignidad y calor inherentes de seres humanos*

*2.- No existirá discriminación por motivos de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de otra índole, origen nacional social, posición económica, nacimiento y otros factores.*

- NBEn Asanblada Orokorra 1988ko abenduaren 9an onartutako "Atxilotze edo espetxeratze egoeran dauden pertsonen babeserako printzipioen" 20. puntuak honakoa dio:

*"atxilotuta edo preso dagoen pertsonak eskatuz gero, bere ohiko bizilekutik arazoizko distantzia batetara dagoen espetxe batean mantenduko dute"*

Euskal presoek inguruan zehazki ere bada aipamenik nazioarteko txosten ezberdinetan:

- Human Rights Watch Txostena: Espainiak terrorismoaren aurka hartutako neurriak. 2005ko urtarrila, Vol.17, No1(D):

*"urteetan zehar, terrorismo delituengatik susmagarriak diren pertsonen aplikatzen zaien dispartzio politikak efektu negatiboa du pertsona hauek euren senideekin harremana izateko duten eskubidearen gainean".*

- Torturaren inguruan Nazio Batuen Elkartearen kontalari bereziak Torturaren inguruan egindako txostena, Theo van Boven, bere Espainiarako bisitaren ostean (E / CN.4 / 2004/ 56 / Add.2) 2004ko otsailak 6.

*“Al determinar el lugar de reclusión de los presos del País Vasco se debería prestar la consideración debida al mantenimiento de las relaciones sociales entre los presos y sus familias, en interés de la familia y de la rehabilitación social del preso”.*

Zentzu honetan, ugariak dira bai Gasteizko Legebiltzarrak norabide honetan onartutako ebazpenak zein Euskal Herriko udaletxe andanetan onarturiko mozioak.

## 2.2.2 Bizi osorako espetxe zigorra

### 197/2006 Doktrina

2006ean, Auzitegi Gorenak kode penal zaharrean epaituriko presoeri erre-dentzioak kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena betetzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urteetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, kartzelan bete beharreko denbora gutxituz. Hau horrela zen, askatasuna galarazten duten kondena luzeak desozializatazaileak direlako eta itzulezinezko kalte fisiko eta moralak eragiten dituztelako. Aditu batzuk 15 urteetan ezartzen dute kalte horiek eragiteko muga, beste batzuk 20 urteetan. Espainiar konstituzioak berak, kartzelaren helburua ber-heziketa eta ber-gizarteratzea dela ezartzen du, kondena luzeak irizpide horren aurkako direlarik.

1995an kode penala aldatu zen, erredentzioak desagertu eta kondena betetzeko gehienezko urteak 20, 25 eta 30 urteetan ezarri ziren, askatasun kondizionala eskuratzeko epeak kondenaren 2/3 eta 3/4etan ezarriz. Euskal presoek eskubideak salbuespenez murrizteko aldaketarik gogorrenak 2003ko kode penalaren aldaketak ekarri zituen, aldaketa horien helburu nagusia preso politikoen eskubideak murriztu eta bizi osorako zigorra aplikatzeko bidea irekitzea izan zelarik, kondena betetzeko gehienezko urte kopurua 40 urteetan ezarriz “terrorismo” kasuetan.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez zirenez itzulgarriak, hau da, ezin zirenez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzear zeuden euskal presoeri kondena luzatzeko eta hortaz, bizi osorako zigorra faktuz aplikatzeko.

Orduetik hona, 93 euskal preso politikoei ezarri zaie doktrina. Horietako 18 garaian ezarritako kondenaz gain doktrinak ezarritako zigor luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun 71 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 58 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizen kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoek aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 92 presok 20 urtetik gorako espetxealdiak beteak dituzte, 31 presok 25 urte baino gehiago daramatzate espetxean. 20 eta 28 urte artean espetxean daramatzaten presoek gehiengoak 700 kilometrotik gora dauden espetxeetan daude.

Neurri honek giza eskubideak urratzen ditu, segurtasun juridikorako eta askatasunerako oinarritzko giza eskubideak urratzen ditu, eta kalte fisiko eta moral konponezinak eragiten dituen kondena luzeak ahalbidetzen ditu.

Estrasburgoko giza eskubideen tribunalak 2012ko uztailean 197/2006, euskal preso politikoen aurkako bizi osorako zigorra ezartzen duen doktrinari buruz emandako ebazpenak egoera berri bat ireki du. Ines Del Río presoaren kasuan emandako ebazpenak, Ines berehala askatu behar dela ez ezik, doktrina hau eskubide urratzailea dela eta ez legezkoa dela dio.

Sententzia honek ordea, Espainiar gobernuaren itxikeriarekin egin du topo, sententziari helegitea aurkeztu eta Ines kartzelan mantentzeaz gain, doktrina aplikatzen jarraitzen duelarik. Egundak, kondena beterik duten 71 presok, ez legezko eran kartzelan jarraitzen dutelarik.

2013ko Martxoaren 20ean, Europako Giza Eskubideen Auzitegiko Areto Handiak, Espainiako Estatuak aurkeztutako errekurtsioa aztertu zuen. Oraindik ez du ebazpenik kaleratu.

## Zigorra luzatzearen ondorioak

197/2006 dotrinaren aplikazioak, euskal preso politikoei beraien zigorra 7 eta 10 urte gehiagok luzatzea dakar, bete beharreko zigorra 30 urteetara luzatuz. Espetxealdia luzatzeak, ondorio nabarmenak gure senide hauengan: adinak eta espetxe egonaldia aurrera egin ahala osasunak okerrera egiten du. Pertsona hauek adin nagusi nabarmeneko preso bilakatzen dira eta ondorioz, espetxe urteak medio, bizitza kalitatea zein osasuna bera kaltetuak suertatzen dira betirako.

Larritasuna ez dator soilik kondena zigorraren 7 edo 10 urteetako luzamenduan, luzamendu hau jakinarazteko eran ere badago. Kasu gehienetan, pertsona hori kalera irteten behar den egunean bertan komunikatzen zaio luzamenduaren jakinarazpen formala eta honek hondoratze psikologiko ikaragarria suposatzen du kasu askotan.



Kontuan izan behar da, presoek kaleratze data zehatza dutenean, denbora luze aurretik hasten direla beraien etorkizun hurbila prestatzen; beraien ingurua itzultzeko baldintzak prestatzen hain zuzen ere. Krudelkeria da pertsona bati azken unea arte bere askatasunaren esperantza ematea, horretan murgilduta bizitzen uztea, etorkizuneko bizitza planifikatzen uztea, hunkitzea...bat batean 10 urteko luzamendua jakinarazteko. Egoera honek, esperantza eza, depresioa eta bizitzeko gogoia gutxitzea ekarri dezake berarekin.

Jaiki Hadi mediku elkarteak osasuna eta espetxea txostenean barnebilduriko datuen arabera, egun, espetxean dauden gaixo fisikoen 113 presoetatik 23k ezarria dute 197/2006 doktrina, eta gaixo psikikoen artean 41 presoetatik 5ek dute ezarria neurri hau.

## **Bizi osorako zigorra estatu Frantsesean**

Frantziar estatuari dagokionez, bizi osorako zigorra legez onartua dago, “condamnation à perpétuité” bezala ezagutzen da. Kondena honen bidez, presoek ezartzen zaion zigorrak ez du epemugarik, hau da, pertsona honek ez du espetxetik ateratzeko datarik. Zigor honek badu segurtasun epe bat baldintzapeko askatasuna eskatzeko; 15, 18 edo 22 urte igaro arte ezin dute baldintzapeko askatasun eskaera egin.

Egoera honetan 4 euskal preso politiko dira gaur egun: Ion Kepa Parot, Jakes Esnal, Frédéric Haranburu eta Mikel Karrera.

Bestalde, bizi osorako zigorra aplikatua ez izan arren, Frantziar Estatuan badaude 20, 30 urte arteko zigor luzeak ezarriak dituzten preso politikoak ere, hainbatetan baldintzapeko askatasuna eskatzeko segurtasun epea ezarria dutelarik. Egoera honetan aurkitzen da adibidez, larri eri den Ibon Fernandez presoak. 30 urtetako zigorra du ezarria eta 22 urte espetxean igaro arte ezingo du baldintzapeko askatasunaren eskaerarik egin. Aitzitik, bere gaixotasuna dela eta, kondena suspenditzeko aukera ahalbidetzen du frantziar legediak.

Era beran, badira lehenik frantziar estatuan zigor luzeak bete ostean, espainiar estatuan ere urte luzetako kondenak bete behar dituztenak, nolahi, pertsona hauek ere bizi osorako zigorra beteko lukete.

Kondena hauek oso luzeak dira, kalte fisiko eta psikologikoak ekartzen dituenak, preso hauek ez dakite noiz aterako diren eta ez dute inolako askatasun perspektibarik. Zigor luzeen ondorioz, presoek adina gorantz doa eta honek eta espetxearen eraginak berak, pertsonaren biziarengan eragin zuzena eta kaltegarria du. Hauetariko preso batzuek, 60 urte dituzte bataz beste.

Presoek ez ezik, senide eta hurbilekoei ere eragiten digun neurria ere bada honakoa. Senideengan, kezka, nekea, tristura, etsipena eta ziurgabetasuna sortarazten



du. Gainera, beraientzat ere zigorraren luzapena dakar, eta beraz, senide presoekin batera osatutako bizi-proiektuak, zein norberanak gauzatzeko ezintasuna suposatzen du; izan ere, euren bizitza ere espetxearen inguruan antolatzen jarraitu behar dute.

## 2.2.3 Gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantendu, osasun asistentzia izateko trabak.

Puntu hauetan laburtu dezakegu eremu honetan ematen den errealitatea:

1. **Osasun asistentzia eza.** Mediku-funtzionario askoren interes gabezia eta arduragabekeria eta baita kontsultetako tratu ankerrean nabarmentzen da batez ere egoera hau, bai kontsultarako trasladoan zein kontsultan bertan: bortizkeriaz tratatuz, polizia kontsultan bertan egotean tematuz froga edozein izanda ere, esku-burdinak ez kenduz jaso beharreko tratamenduak horrela eskatuta ere,... Ondorioz, askotan kontsulta burutu gabe itzultzen da presoak espetxera. Izan ere, gaixoen eskubideak ez dira errespetatzen eta intimitate edo konfidentzialtasun eskubideak ez dira errespetatzen. Maiz gertatu izan da baita ere presoak kartzelaz aldatzean mediko txostenak galtzea, edo eta diagnostikoak egiteko beharrezkoak diren frogak osagarriak atzeratu izana. Espezialisten kontsultetara atzeratzeko asko luzatzen dira tramiteak, ondorioz, potentzialki gaiztoak izan daitezkeen diagnostiko asko atzeratu egiten dira. (behar bezalako osasun asistentzia jaso ez izanaren ondorio gordinak dugu Xabier Lopez Peñaren kasua, non kasuaren inguruko gardentasun falta nabaria den)

2. **Konfiantzazko profesionalen asistentzia mugatua.** Espetxek kanpoko medikuen asistentzia jasotzeko eskubideari dagokionez, ukazioak eta oztopoak nagusi izan ohi dira. (Espainiar Estatuko Espetxeko Lege Organiko Nagusiko 36.3 eta Espetxe Legediko 212.3 artikulukoak). Eskara gehienak ukatu egiten dira “segurtasunaren” aitzakipean gehienetan.

3. **Kartzelako mediku-funtzionarioek kanpoko medikuekiko duten kolaborazio eskasa.** Bisita egiteko baimenik ez dutenean konfiantzazko medikuek, kartzelako medikuarekin edo erreferentziazko ospitalekoarekin harremanetan jartzen saiatzen dira presoaren jarraipena egiteko. Gehienetan saiakera hauek ez dute fruiturik ematen.

4. **Patologiaren jarraipen eskasa.** Urruntasun geografikoa dela eta, konfiantzazko medikuekin bisitak izatea zailteaz gain, konfiantzazko medikuak funtzionario medikuekin telefonoz harremanetan jartzera behartuak daude. Presoarekin harremana mantentzeko, interbenituak dauden eskutitzen bidez egin behar izaten dute. Honek eritasun psikologikoen kasuan batez ere, jarraipena ezinezkoa bihurtzen du maiz.

**5. Espainiar kode Penaleko 92. artikulua**ren ukazioa. Sistematikoki gertatzen da gure senideen kasuan azken urteotan, gaixotasun larriak eta sendaezina dituzten presoengatik espainiar Estatuko legeak diotenen jaramonik egin gabe. Eta ez hori bakarrik, euskal preso politikoentzako ad hoc asmatutako baldintza berriak txertatu dituzte Kode Penalean, non preso gaixo larrien irteera damu politikoarekin eta polizia kolaborazioarekin lotzen den (Gotzone Lopez de Luzuriagaren kasua adibidez); edo eta hiltzeraren egotea baldintza bezala ezarri nahi den (Iosu Uribebarriaren kasua).

Azken urteotan gobernuak “askatasun” modalitate berri bat asmatu du preso gaixo larrientzat; ordura arteko bere ledegi eta arautegia errespetatu gabe, “espetxe arinduen” figura finkatzen du. Honen bidez preso gaixoa etxean dagoen baina kontrol estu baten pean, eskumatur telematikoki batekin kasu askotan, eta kontrol neurri oso zorrotzekin kasu guztietan, batzutan jasanezinak bihurtzeraino, berez haien legeriaren arabera ohiko baldintzen pean kalean egon behar baziren ere senide hauek (egoera honetan zigorra betetzen egonda hil dira Mikel Ibañez eta Angel Figuera).

**6. Espetxealdi luzearen ondorioak.** Azken urteotako erreforma eta aldaketa juridikoek (gure senideentzako ad hoc eginak berriz ere) bizi arteko espetxea ezarri dute de facto espainiar Kode Penalean (30, 40 urteko zigorrak oso osorik bete beharrak). Honek osasun mailan ondorio oso negatiboak ditu. Horrela, preso kolektibo honen batzuetan besteko adina ikaragarri igotzen ari da. Hori dela eta, argi dago adina eta espetxealdi luzearen eraginez egun osasuntsu dauden asko eritasunak jota geratuko direla ez oso denbora luzera. Ondorioz, gaixo kopurua ikaragarri handituko da datozen urteetan. Era berean, egun gaixotasun larriak dituzten presoek, egungoak larriagotzeaz gain, gaitz berriak izateko aukera handiak dituzte. Eta, jakina, egoera honetan gaixotasun larri hauen okertzearen beste ondorioa bistan dago: heriotza espetxean edo eta etxean hiltzeraren askatuak. Heriotza zigorra aplikatu zaie de facto.

Neurri guzti hauek erabat talka egiten dute nazioartean onartutako hainbat eskubiderek. Estatuak espetxeratutako pertsonak giza duintasunez tratatu behar dituzte (Eskubide Zibil eta Politikoen nazioarteko Hitzarmena-PDCIP, 10. art.) eta ahalik eta osasun fisiko eta mental maila gorena izatea ahalbidetu (PIDESGen 12.art.). Bestetik gaixotasun larriak dituzten presoek askatasuna ukatuz CEDHaren 3. artikuluen, PIDCParen 7. artikuluan aitortzen zaien osotasun fisikorako eskubidea urratzen zaie.

Aldi berean, 1948. urteko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 25. artikulua kontrarioki eraberritzen du

*“Toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado, que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad”*

## 2.2.4 Isolamendua, tratu iraingarria eta erasoak

Bakartze edo isolamenduaren aplikazio zorrotza euskal preso politikoen bereizgarri bat da. Isolamendua edo bakartzea egoera oso zehatzetara zuzendutako neurria bada ere, espetxe arautegian (zigor puntual gisako neurritzat hartzen dena), gure senide eta lagunen kasuan ohiko edota behin-betiko neurri gisa aplikatzen da. Esan bezala, euskal presoek kasuan isolamendua edo “mitard”a maiz ezartzen den zigor bat da. Baina zenbait kasutan presoak again isolamenduko moduluan egon ez arren bakarrik egoten dira, hau da, beste kiderik edo euskal preso politikorik gabe egoten dira, eta kasu hauetan bakartuak daudela esaten dugu.

Zoritxarrez tarteka ematen dira baita ere gure senide presoenganako eraso fisiko zuzenak eta irainak, beti ere erasotzaileen inpunitatearen bespean. Horren adibide bat Xabi Aranburu ondarrutarrak Muret Seysses espetxean bizi behar izan zuen egoera tamalgarria. Jipoitu egin zuten, astebetetz mitardean edo zigor ziegan izan zuten, arroparik gabe, manta txiki batekin eta segituan puskatzen zen paperezko buzo batekin, komuneko paperik gabe, dutxatu gabe, medikaziorik gabe...

## 2.2.5 Espetxealdi prebentiboa

Gure senideak atxilotzen dituztenean, espetxealdi prebentiboa sistematikoki aplikatzen zaie, nahiz eta ez duen ohiko neurria izan behar eta epaiketan egoteko bestelako neurri ez hain kaltegarriak lehenetsi beharko liratezkeen PIDCParen 9.3. artikulua arabera. Espainiar estatuan 4 urtera arte egon daitezke egoera honetan epaiketaren zain eta Frantzian 6 urtera arte luzatu daiteke, nahiz eta PIDCParen 14.3.c artikulua arabera behar ez bezelako atzerapenik gabe egin beharko litzatekeen epaiketa, eta espainiar Kode Penalaren 503 eta 505 artikuluen arabera ere beharrezkoa dena baino gehiago luzatu beharko ez balitz ere. Azpimarratzekoa da egoera honetatik pasa den pertsona andana eta aipatzeko modukoa da egoera honetan urteak eman eta gero epaiketan errugabetuak izan direla, inongo aitortzarik zein oradainsaririk jaso gabe. Azpimarratzekoa ere epaiketaren zain kalean, baldintzapeko askatasunean gehienak, ditugun senide pila; gehienak ilegalizazio prozesuen ondorioz atxilotutakoak. Urteetan zehar epaiketaren zain egoteak suposatzen duen guztiarekin pertsona horrentzat zein bere ingurukoentzat: etengabean noiz iritsiko den epaiketa baten zain bizitzea, horrek suposatzen duen ziurgabetasunarekin eta bizi proiektuak garatu ahal izateko aukerarik gabe.

## Ondorioz

Geure eta gure senideen aurka ere biolentzia erabiltzen dela ezin da ukatu, hau da **gehiegizko indarraren erabilpena, espetxe politikaren bitartez argiki gauzatua**, bidegabea den izugarriko sufrimendua suposatzen duena. Politika honen helburua pertsona haustea da, giza borondatea eta identitatea suntsitzea bilatzen duen programa kontziente bat da azken batean, mendeku logika batetik aplikatzen dena. Presoaren prentsaerari, idealei, sinismenei eta bizitza bera ulertzeko moduari eragin nahi diona modu zuzen batean. **Zigor gehitu bat da, kolektibo zehatz bati ezartzen zaiona, segurtasun irizpideekin zerikusirik ez duena, hare gutxiago presoaren onura edo bergizarteratze-prozesu batekin**. Helburu politikoa duten neurriak dira, **tortura** azken batean NNBBak egiten duen definizioa kontutan hartzen badugu:

*“cualquier acto por el que se inflinge de manera intencional a una persona dolor severo o sufrimiento de carácter físico o psicológico con el fin de obtener del mismo o de una tercera persona información o una confesión, castigarle por un acto que ella o una tercera persona ha cometido o se le acusa de haber cometido, o intimidar o ejercer coerción sobre el mismo o una tercera persona por cualquier razón basada en cualquier tipo de discriminación, cuando dicho dolor o sufrimiento está inflingido por, bajo instigación de o con el consentimiento o la aquiescencia de una agente público u otra persona actuando en un cargo oficial. No se considerarán torturas los dolores o sufrimientos que sean consecuencia únicamente de sanciones legítimas, o que sean inherentes o incidentales a éstas” (Convención contra la Tortura y Otros Tratos o Penas Crueles, Inhumanos o Degradantes, art.1)*

### 2.3. Senideak

Arestian aipaturiko definizioak senideok urteetan zehar bizi izan dugun eta bizitzen jarraitzen dugun errealitatearekin zerikusi zuzena du. Guk pairatzen dugun sufrimendua ez da zilegia, ez da bidezkoa, ez eta justifikagarria ere. **Espetxe politika honen bidez senideok erabili nahi gaituzte euskal presoei hertsadura eragiteko, justua ez den presioa sortzeko, eta beraz espetxe politika berezitu hori tortura moduan erabiltzeko.**

Ondorioz, gure eskubideak ere urratuak dira; batzuk **zeharka** gure senideei espetxe politika berezitu hori aplikatuz, eta ondorioak guk geuk ere biziz, eta beste batzuk gure azalean zuzenean biziz.

**Atxiloketa unetik** bertatik ematen da gure bizitzetan esku-hartzea. Lehenik eta behin goizaldeko ordu txikitik sartzen delako bortizki etxera polizia, atxilotua

izango den pertsona bertan bizi edo ez. Miaketetan ez dute kontuan hartzen zeinena den etxe hori edo eta hankaz gora jartzen ari diren logela atxilotutako pertsonarena den edo ez; bertatik senideen objektu pertsonal asko eraman ohi dituztelarik, baita ordenagailu, argazki edo eta norberaren intimitateari dagozkion kontuak. Horrelako egoeretan senideei zuzendutako mehatxuak eta irainak sarritan ematen dira, baita hitzeko bortizkeria zein fisikoa; beldurra eta herstura sortzen duten egoerak azken batean. Gainera, hainbat komunikabideetan sarritan atxilotuaren eta bere senideen datuak argitaratzen dira, epaitu aurretik errudun bihurtuz, itxuraldatutako informazioa emanez, argazkiak ateraz, kriminalizazio zuzena ematen da atxilotutakoaren inguruan zein bere senideen inguruan maiz.

Honela, Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpen Unibertsalean bere 12. artikuluan aipatzen den eskubidea errotik ukatzen zaigu:

*“Nadie será objeto de ingerencias arbitrarias en su vida privada, su familia, su domicilio o su correspondencia, ni de ataques a su honra o a su reputación. Toda persona tiene derecho a la protección de la ley contra tales ingerencias o ataques”*

**Inkomunikazioak** irauten duen garaian familiek torturaren beldurrez bizi duten **oinazea ikaragarria da**; ez dute atxilotutako senidearen inguruko inongo informaziorik bost egunetan zehar, ez non dauden, ez nola. Zoritxarrez maizegi baieztatzen dira beraien beldurrak bere senidearen testigantza ezagutzerakoan, itzelezko mina eta babesgabetasun sentsazioa sortzen duena.

Espetxeratzea eman eta gero, gure senideen komunikazio guztiak **interbenitzearekin batera**, gure bizitza pribatuan ere sartzen dira, barruan dagoen senidearekin edozein hitz idatziz edo eta ahoz beste pertsona batzuk entzunak eta aztertuak izatea suposatzen duelarik. Honek **erabat urratzen du intimitaterako eskubidea**, are gehiago bikote aurrez-aurrekoetan, non harreman intimoak ere grabatuak izan daitezkeen. Bestetik senide izateagatik pairatzen ditugun bestelako urraketak ere aipatu behar dira; **gure eskubide zibil eta politikoak** murriztuz, gure izan ona zikindu eta parte-hartze sozial eta komunitarioa ekidin nahian, bazterketa sustatuz. Honen adibide garbia da, duela gutxi Bilboko jaien testuinguruan Jone Artolaren kasua, bere senide izaera erabili zelarik bere aurka egiteko hainbat komunikabide zein kargu politikoan aldetik. Honek, beste batzuen artean, lerro batzuk lehenago aipatu dugun artikuluen kontra egiten du modu zuzenean.

Baina deklarazio honek, senideei errespetatzen ez zaizkigun artikulua gehiago baditu, 3.ena adibidez “La familia es el elemento natural y fundamental de la sociedad y tiene derecho a la protección de la sociedad y del Estado”.

Hau da erabat ukatzen zaigun eskubidea espetxe politikak jartzen dituen oztopo guztiengatik, sakabanaketa horren adibide garbiena delarik. Lehenik eta behin edonolako **komunikazioa izatea zailtzen da** lehen aipatutako murrizketa pila horien

bitartez; baina gainera, komunikazio modu horiek (eskubidez dagozkionak-dagozki-gunak) egin ahal izateko, **milaka kilometro egitera behartzen zaigu astebururo**, ez ditugu borondatez egiten, behartuta baizik. Maiz gainera ezinezko ere bihurtu daitezke; adibidez, aurrez-aurrekoak egiteko astegun bat halaberrez erabili behar denean. Ezin ahaztu gainera **adinagatik eta osasunagatik bidaiatu ezin duten senideak**, gero eta gehiago direlarik adinean oso aurreratuak dauden pertsonak, edo eta urteetan egindako kilometroek osasuna higatu dien pertsonak. **Familia bat izan eta berarekin harremana izateko eskubidea garatzeak beraz, biziaren eskubidea bera arriskuan jartzen du.** Bidaia oso luzeak egin behar ditugu, joan eta buelta, asteko neke guztia pilatuta, eta horrek kotxea hartzerakoan suposatzen duen arrisku gehituarekin. Honek istripu asko suposatu ditu azkeneko urteetan zehar, askok biziaren osorako ondorioak dituzte, eta gutako 16ri heriotza ekarri die, sakabanaketa politikaren biktima zuzenak. 2013. urtean jada zazpi istripu izan dituzte 16 senide eta lagunek, espetxetara bidean edo espetxetatik bueltan.

**Espetxe aldaketak ematen direnean presoaren familiak ez du horren berririk jasotzen**, askotan espetxe atarira iritsi eta bisitarik ez dutela esaten ditenera arte. Baina hala ere ez diete jakinarazten nora eraman duten euren senidea, eta egunak, asteak ere pasa daitezke presoaren inongo berririk jakin gabe, telefonoz deitzen uzten ditenera arte. Izan ere, trasladoan egun dextente eman baditu ere presoak eta espetxe ezberdinetan egunak emanda ere, ez du etxera deitzeko aukerarik izaten. Honek, atxilotuta ematen denean bezala, Atxilotutako eta Espetxeratutakoen babesarako printzipioen multzoan, NBEaren Batzar Orokorrek 1988ko abenduaren 9an onartutako ebazpeneko 16. artikulua kontratu egiten du:

*“Prontamente después de su arresto y después de cada traslado de un lugar de detención o prisión a otro, la persona detenida o presa tendrá derecho a notificar, o a pedir que la autoridad competente notifique, a su familia o a otras personas idóneas que él designe, su arresto, detención o prisión o su traslado y el lugar en que se encuentra bajo custodia”*

**Ezinegona, kezka eta ardura jarraia da beraz senide batentzat.** Alde batetik, barruan daukan eta maite duen pertsonarekiko ardura dauka, kolokan edo arriskuan egon daitekeenaren kezkarekin biziz, espetxe barruan bizi den tentsio hori norbereganatuz. **Informazio ezak** handitzen du sarritan kezka hori, espetxera deituta ere inork ez diolako senideari erantzunik ematen, nora eraman duten esaten... ezjakintasunak **larridura sortzen du.** Baina baita ere senidearen biziaren eskubidea munduaren inguruan antolatzen delako egunerokoan, ez bakarrik asteburuetan. Bisitan joango diren hamar lagunen zerrenda osatu behar da, koordinatu behar da, bidaia nola egin pentsatu behar da, paketeetan sartzeko arropak erosi behar dira gerora poltsa osatu eta hara eramateko, kanpokoak deitzeko aukerarik ez duenez presoaren deia zain bizi da senidea... Ezin ahaztu hainbat familietan **senide bat baino gehiago dagoela preso, eta espetxe berean elkartu beharrean, haien artean ere aldentutako presondegietara bidaltzen dituztela**, tartean ume bat egonik ere.



Eta horri denari bidaiaren tentsioa gehitu behar zaio, errepideari beldurra, eguraldia eta bidean topatu ditzakegun askotariko trabak, polizia kontrolak kasu, non irainak eta tratu desegokia oso ohikoak diren.

Ezezagunagoa da agian **hurrek sakabanaketa dela eta bizi behar izaten dituzten egoera gordinak. Ume guztiek dute guraso batzuk eta familia bat izateko eskubidea**, eta beraiekin harreman jarrai bat izateko eskubidea. 1989ko azaroaren 20an, Batzar Orokorrak 44/25 erabakiaren bitartez berretsitako Umeen Eskubideen inguruko Hitzarmenak 8. eta 9. artikuluetan zehazten den bezala. Espetxe politikak eskaintzen dituen harremanerako aukerak izatez murrizak badira, bereziki sailtzen da presoaren gure senideetako bat denean, **bisita aukeren interpretazioa are murriztaileagoa eginez** (aurrez-arrekoak lortzeko aukera, bisita denbora, deiak...). Gainera, umeei 10 urte betetzen dituztenean konbibentzia aurrez-aurrekoak izateko aukera galtzen dute, umearen garapenean horrek suposatzen duena kontuan hartu gabe, inongo argudiorik eman gabe. Honek guztiak eta askoz gehiago, familia, jendartearen oinarrizko elementua izanda (art. 10.1 del Pacto Internacional relativo a los Derechos Económicos, Sociales y Culturales - PIDESC), berau zalantzan jartzea suposatzen du, estatuaren eta jendartearen inongo babesik ez baitu gure kasuan. Guraso biak espetxean dituztenen umeen kasuan, areagotu egiten da gogortasuna, Oroitz Salegi eta Lierni Armendariz-en umearena adibide garbia dugu kasu honetan ere. Guraso izan aurretik, bikotea Mansilla espetxean zegoen. Baina, haurra izan baino bi hilabete lehenago Lierni Armendariz Aranjuezera mugitu zuten, bertako amen moduluan egon zedin. Orduetik, bi presoak eta euren senideak hirurak elkartzeko saiakerak egin dituzte. Hamaika hilabetetan bi presoak elkartzeko hainbat eskaera egin zituzten. Oroitzek bere semea bideokonferentzia bidez ikusi ahal izan zuen lehen aldiz. Eta aurrez aurre ezagutzeko aukera izan zuen, baina, horretarako senideek haurra Aranjuezetik atera eta Mansillaraino eramane behar izan zuten, bisita bat izan zezaten elkarrekin. Epailak onartu du hirurak elkarrekin bisitak izateko duten eskubidea, eta Oroitz Salegi Aranjuezera eramane zuten udan lehen bisita egin ahal izateko; bere haurra izan eta hamaika hilabetetara. Hau da, haurra izan eta ia urtebete geroago arte ezin izan dute hirurak batera bisita bat izan. Eta zehaztu behar da, Oroitz Aranjuezera bisitak egitera soilik eramango dutela, baina, destinua ez diotela aldatu; eta beraz, bisita izan ondoren Mansillara itzuliko dutela eta ez dakiela berriz noiz onartuko dioten beste bisita bat Aranjuezen, eta behin onartuta noiz eramango duten haraino berriz.

Bestetik, sarritan ematen dira **senideekiko jarrera eta gertakari krudelak edo ez gizatiarrak eremu ezberdinetan**; bereziki espetxe eremuan non funtzionario batzuen jarrera oso oldarkorra izaten den, deskalkifikazioak, tratu ezberdina eta bereziki zorrotza bestelako senide batzuekin alderatuta, trabak...baina ziurrena agerikoena euskal preso baten senide izateagatik egiten diren miaketa sistematikoena da. Espetxe araudian (art. 68.2, 71.1 RP), lehenik eta behin bestelako mekanismo batzuk erabili beharko liritezkeela esaten da (gailu elektronikoak adibidez), eta miaketa eginez gero argudiatua eta neurtua izan behar duela...gure kasuan aldiz, zorizkoa dela esaten

digute, eta ezinbesteko baldintza bihurtzen da aurrez-aurrekora sartzeko. Asko izan dira azken urteotan ehundaka kilometrotako bidaia egin ostean ikusteko eta besarkatzeko aukerarik gabe geratu diren senideak, hilabete luzeetan behin eta berriz errepikatu izan dena batzuen kasuan. Are ulertezinagoa da neurri hau kontutan hartzen badugu gure senide presoak miatuak izaten direla horrelako komunikazioak eta gero. **Senideen artean ika-mikak eta tentsioak sortzeko helburua duen neurri bat da honakoa, eta presoari herstura eta presioa sortu bestetik**, hainbeste kilometro egin eta gero maite den pertsona besarkatzeko aukeraren aurrean, askorentzat duina ez den tratua onartu behar izatera eraman dituena. Basakeri honen adibide da aurtengo maiatzean Ander Mujikaren hiru lagun bisitarik gabe geratu zirenekoa Bourg en Bresse espetxean, batek aldakan protesi bat zuelako eta beharrezkoak ziren mediku agiri guztiak aurkeztu ostean. Edo abuztuaren 24an, Badajozeko espetxean dagoen Alberto Marinen amak espetxera sartzerakoan egindako miaketetan jasan behar izan zuen tratua iraingarria.

Zoritxarrez, senideenganako eraso eta jazarpen zuzenak ere ematen dira. Azken garaiotan esanguratsuenak eta larrienak agian Enara Rodrigex eta Izaro Arruarteren kasuak dira. **Sakabanaketak utzitako beste adierazle gordin bat izan zen, Enara Rodrigexen hilketa saiakera eta eraso sexuala** gauzatzeko aprobetxatu zen unea. Senide baldintza aprobetxatuz bere aurkako eraso gogorra bititza egokitu zitzaion. Gerora gainera ez da kasua argitzeko ikerketarik egin, ez da egon inongo ondoriorik, ez eta agintarien partetik inongo adierazpenik. Eta zoritxarrez, oso epe laburrean beste eraso bat jasan behar izan zuen Izaro Arruarterek oporretan zegoela. Behin eta berriz gogoraraziz eta erabiliz bere senide baldintza mehatxatu egin zuten.

Senideenganako krudelkeria eta tratua ez gizatiarraren adibide garbia da baita ere, azken asteotan Pablo Gorostiagaren emaztearen gaixotasuna eta heriotzarekin gertatutako guztia. Sakabanaketa politikak ia bi urtez elkar ikustea ekidin eta gero, eta epailearen baimena bazuen ere emaztea agurtzera joateko, senideak etengabe telefono deiak eta tramite bat eta beste bat egiten aritu behar izan ziren, momentu gogor horietan samin gehiago gehituz, zaurian gehiago sakonduz. Sakabanaketa politika salatzeko ondorengo elkarretaratzean bikotearen argazkiaren kontura gertatutako guztia, **ankerkeria horren jarraipen bat bezala ikusten dugu, espetxe politikaren helburuen gauzapena** azken batean.

**Guzti honek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko 5. artikulua urratzen du, inork ez dituela torturak, ez zigor edo tratua krudelik, ez-gizatiarrik, ez iraingarririk jasango esaten baitu.**

Ezin aipatu gabe utzi sakabanaketak suposatzen duen izugarritzko kostu ekonomikoa (familia bakoitzari hilabetean bataz beste 1.000 € tik gora), horrek familiako kideei eguneroko bizimoduan ongizatearen gutxitze bat suposatzen dielarik, bere diru-sarreraren portzentaia handi bat gastu horiek kubritzeko erabiliz. Bestetik, osasuna bera dago, autobus, kotxe edo eta furgonetetan horrelako bidaia luzeak hain maiz egiteak



izugarritzko desgastea suposatzen duelarik, urteetan aipaturiko tentsio eta ezinegon iraunkor horretan bizitzeak suposatzen duenari gehitzen zaiona. Askok, egunak behar izaten dituzte horrelako bidaia batetik berreskuratzeko, asteburua bidaiari emanda deskantsatzeko aukerarik ere izan gabe, eta berriz asteari ekin behar.

Aurretik aipatutako guzti hauek senideen eskubideen urraketen adibide batzuk besterik ez dira, batzuk modu zuzenean eta beste batzuk gure senideen eskubideak urratzen, eurei aplikatzen zaien salbuespeneko espetxe politikaren bitartez, zeharka guri ere urratutakoak. Horregatik hain zuzen ere eta NNBBek ematen duten definizioaren arabera

*Biktimatza, kalteak, lesio fisiko zein psikologikoak barne, sufrimendu emozionala, finantza galera edo bere oinarritzko eskubideen urritze funtsezko bat izan duten pertsonak hartzen dira, estatu kideetan egungo legeri penala urratzen duen ekimenen edo bereren omisioaren ondorioz, boterearen gehiegikeria gaitzezten duena barne*

(Boterearen Gehiegikeria eta Delituen Biktimentzako Justiziaren oinarrien inguruko Deklarazioak bere 21 artikulutan, NBEen Batzar Orokorrak 1985eko azaroko 40/34 Ebazpenean), **gure senideak eta gu geu, salbuespeneko espetxe politika honen biktima garela** pentsatzen dugu senideok, ideia horrekiko atxikipena oso nagusia delarik gure elkartearen barruan. **Biktima gatazka baten ondorioz gure eta gure senideen eskubideak urratuak izan direlako.** Ez dugu biktimismo motibazio batekin esaten ordea, ezta biktima identitatea sustatzeko asmoa dugulako, gure eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzeko modu bezala baizik. **Horregaitik garrantzitsua iruditzen zaigu urraketa guztiak kontuan hartuak izango direla dioen plan batean gu eta gure senideak kontuan hartzea.**

### 3. Ardatzak eta ekimenak

---

Zuzenean gure senideen inguruan hitz egiten duten ekimenen inguruan arituko gara soilik atal honetan, aipamen orokor batzuk egingo ditugularik soilik.

#### 6. ekimena

Torturaren biktima askoren senide garen heinean, **aurrerapausutzat hartzen dugu fenomeno arbuigarri eta giza eskubideen urraketa gorenatariko bat den honen inguruko azterketa zorrotz bat proposatzea**. Hainbeste urteetan zehar babesgabetasuna eta inpunitatea nagusi izan diren herri honetan, behar beharrezkoa ikusten dugu behingoz gai honi heldzea. Zaila izango da, ordea, torturaren fenomenoak eragin dituen ondorioen erradiografia erreal bat egitea, kasu batzuen inguruan urte asko igaro baitira, baina ezinbestekotzat jotzen dugu.

Hala ere, ikerketa horretan parte har dezaketen herritarren inguruan **definizio falta** sumatzen dugu. Nongo biztanleei begirakoa da proposamen hau? Izan ere, baztertzaila izango litzateke torturatuak izan diren nafar biztanleak kontuan ez hartzea, adibidez. Ikuspegi inklusiboa beharko luke ikerketak gure aburuz.

**Kezka handiz ikusi dugu torturaren biktimei, edozein biktimak dituen eskubide berdinak ez aitortzea**; izan ere, errekonozimenduaz, ordainaz eta presentzio neurriak aipatzen ditu planak, baina egiaz, memoriaz eta justiziaz ere hitz egin beharko litzateke.

Bestetik, **ontzat** ematen badugu ere Nazio Batuek tortura kasuak ikertzeko proposatzen duen **“Istanbulgo Protokoloa” erabiltzea**; banakoan torturak izan dituen eraginak ikertzeaz aparte, **famili mailan eta haratago ere, sozialki, herri gisa, torturak suposatu duena ikertzea interesgarria litzatekeela uste dugu**. Jakin badakigu, senide askok ondorioak pairatu izan dituztela zuzenean atxilotuak izan gabe ere, “trauma bikario” delakoak ere ematen direlarik. Bestetik, torturaren biktimen familiak maiz jakin nahi izaten dute **horrelako bizipenetatik igarotako pertsona bat nola ulertu eta lagundu**; horretarako bitartekoak aztertzea egokitzat jotzen dugu. Gainera, kontutan hartu behar dugu, preso andanei sintomatologia espetxetik atera eta gero agertzen zaiela, horietako askok espetxean hamarkadak eman badituzte ere. **Irteeran ere senide horiek ahalik eta modu egokienean akonpainamendu lan hori egiteko bitartekoak eskaini beharko liratekeela uste dugu**. Ahaztu gabe, lehen aipatu dugun bezala, **espetxe politika bera eta berau aplikatzeko modua tortura definiziopean sar daitekeela, eta beraz, hainbeste urte baldintza horietan eman**

**dituen edozein presok ondorioak pairatuko dituela bere irteeran.** Horregatik, irteera hau ahalik eta egokiena izan dadin bitartekoak jartzea garrantzitsua iruditzen zaigu, bai presoek begira zein senide eta inguruari begira.

## 8. ekimena

Lehenik eta behin azpimarratu behar dugun zerbait gure senide askoren egoeraren inguruan aipamenik ere ez egitea da, larritasunez ikusten dugu. Izan ere, presoek erreferentzia egiten bazaie ere, **deportatu eta errefuxiatuak** plan honen arabera existitu ere ez dira egiten. Etxerategi argi du irtenbide integral bat eman behar zaiola gure senideen egoera ezberdinei, denak etxean izatea dela gure helburua. Beraz, edonolako proposamenetan gure senide guztiak behar dira aintzat hartu, bai presoak, baina baita deportatuak eta errefuxiatuak ere. Honetarako gatazka konponbide fase batean jarri behar dela ziur gaude Etxeraten, eta horren garrantzia ez azpimarratzea, lehen aipatu dugun bezala, plan honen gabezi handi bat da.

Bestetik, **ez dugu egoki ikusten bergizarteratzea bezalako terminoak erabiltzea;** izan ere, horrela ulertzen baita noizpait baztertu direla edo eta baztertuak izan direla, inguruarekiko isolatuta bizi direla, eta gure senideen kasua ez da hori. Izan ere, **maite dituen inguru bat mantentzen dute, gertatzen denarekiko interesa eta ekarpenak egiteko borondate osoa... Presoen etxeratze bati buruz hitz egingo genuke guk.** Aurreko ekimenarekin bezala, ekimen hau zuzendua dagoen presoen zehaztapen maila falta dela deritzogu. EAEko biztanleentzat izango da berririk? Estatu espainolean preso daudenentzat bakarrik?

**Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren gaineko erantzukizuna** zehazki zertan datzan planak zehazten ez badu ere, konpromezu hori **jendarte osoaren konpromezua izan behar duela uste dugu,** jendarte osoak Giza Eskubide guztien errespeturako hartu beharreko konpromezua hain zuzen ere. Bestetik, **bakea eraikitze bidean gure senide presoak aktibo garrantzitsu izan beharko lukete,** beste herrialde batzuetako gatazken konponketan izan diren bezala. Horrela, ezinbestekoa iruditzen zaigu bere parte-hartze aktiboa prozesuan; gatazkaren ondorio diren heinean, konponbidearen parte ere izan behar dute, eta horretarako konpromezua adierazi izan dute maiz.

**Ez dugu uste egungo lege-esparrua hartu behar denik erreferentzia bezala, ez erreferentzia posible bakar bezala behintzat;** izan ere, arestian aipatu bezala, legeri hori bera izan da eta da, egun giza eskubide aunitz urratzen dituenak. **Legeria, beharren arabera moldatu beharko da.** Hala ere, **lehentasunezkoa presoek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak** etetea da. Horrela, egungo legeriarekin ere haietako askok kalean beharko lukete egon, eskubidez, ez irtenbide humanitarioak medio: larriki gaixorik dauden presoak, euren zigorra beteak dutenak

eta zigorraren 2/3ak edo 3/4ak beteak dituztenak. **Eskubide hauek berma daitezen mekanismoen zehaztapen falta sumatu dugu**; izan ere, Espainiako eta Frantziako gobernuen jarrera erabat inobilistak nola edo hala aldarazi beharko dira. Hartara, **Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren arteko balizko akordio batetik haratago iritsi beharreko ekimenak planteatu beharko liratekeela pentsatzen dugu**, bestelako instituzioen eta jendarte zabalaren jarrera aktibo bat bultzatuz, jarrera konprometitu bat. Horretarako **garrantzitsua ikusten dugu egoera guzti hauen berri izatea, aukerak zabaltzea jendarteak ezagutu ditzan, komunikabide zein instituzioetan eskubide urraketa hauen inguruan hitz egitea erraztuz.**

Bestetik, zaila da “garai batean, legez kanpokoak ziren baina orain modu legezkoan garatzen diren jarduera politikoekin erlazionatuta dauden kondenak dituzten presoentzako zentzuzko neurriez” hitz egitea, **atxiloketek eta epaiketek bere horretan dirauten bitartean**. Gure ustez, pertsona hauen kaleratzea eskatu beharko litzateke, eta beraz, oraindik ere abian diren sumarioak ere bertan behera geratzea, ez baitugu senide preso gehiagorik nahi.

Eusko Jaurlaritzaren **espetxe-alorreko jardun-printzipioen oinarrian presoen eskubide guztien exigentzia** egon beharko litzateke, urraketak oinarritzat dituen espetxe politikaren kontrako jarrera irmoa mantenduz, egoera horien ardura-dun direnei bere horretan mantentzea ezinezko bihurtuz.

Bestetik, eta eskubideak urratzen dituzten salbuespenezko neurri horiek desaktibatu artean, **egoera lazgarri horiek ahal den neurrian arintzeko mekanismoak martxan** jartzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu. Gure senide presoek eta geuk ere bizi dugunarekiko gertutasuna adieraziz, keinuak izanez, egoera horren berehalako amaieraren beharraren inguruan deklarazio irmoak eginez, adostasunak bilatuz, eta berak sortzen dituen ondorioak leunduz saiatuz, sakabanaketak suposatzen duen koste ekonomiko izugarriarekin lagunduz, adibidez.

## 4. Konklusioak

Etixerat, euskal deportatu, iheslari eta presoen senideon elkarteak **positiboki** baloratzen du herri honetan arazo politikoaren aurrean Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi baten sorrera eta hain zuzen ere **bakera eta bizikidetzara hurbildu nahi gaituen proposamen bat egitea**. Planean planteatzen diren printzipio askorekin ados gaude, gainera.

Hala ere, **errotiko aldaketak beharrezkoak dituela uste dugu** benetan pausuak eman nahi baditu helburu horietarantz. Herri honek, gizartearen parte zabal batek hala onartutakoa, bizi duen **gatazkaren oinarria eta horren ondorioz sortu diren egoera guztiak, giza eskubideen urraketa guztiak, barne hartzen dituen proposamen bat** behar dugu.

**Eredu inklusibo bat** nahi badugu, **denok hitz egiteko eta parte hartzeko** aukera izango dugun eredu bat. Lortu nahi dugun egi inklusibo horretan, ezin dira erre-presaliatuen senideak falta, **ezin da gure memoria falta**, ezta egoera gordin horren lekukotza, pairatzen ari garen estatuko bortizkeria hori. **Denon eskubideak errespetatuak diren, geure eta gure senideen eskubideak barne, errespetatuak izango diren jendarte baten aldeko apustua egiten du Etixerat-ek**. Jendarte demokratikoago eta bidezkoago bat nahi dugu, gatazka eta bere ondorioak gaindituko dituen.

Horretarako ezinbesteko urratsa aitortza izango da, baina, beti ere **sufri-mendu guztien aitortza**. Herri honetan gatazka luze batek pertsona askorengan eragin duen eta eragiten duen sufrimenduaren aitortza, bai jendartearengandik eta baita agintari eta instituzioengandik ere. **Ezin da ikuspegi partzialetan oinarritu**, beraz. Plan honek aukera paregabea du zentzu horretan.

**Egiaren eraikuntzak eta memoriaren berreskurapenak, gertakarien argipen bat beharrezkoa du:** ¿zer gertatu zen? ¿zergatik? Herrialdearen historia hurbilaren kontakizuna da, **sinesgarria** izan behar du eta **egi publiko batean oinarritu behar du**. Ezin da osagai hori ukatu sukaldatu nahi dugun bake eta bizikidetzara honetan; bestela, berriz ere akats berdinak errepikatzeko aukerak biderkatzen dira, **zimendurik gabeko etxe bat eraikitzea bezalakoa litzateke**.

Horregatik **gure prestutasun osoa adierazten dugu norabide horretan, justizian eta giza eskubideetan oinarritutako bake baterantz gure ekarpena egiteko eta parte-hartzeko**; eta beraz, beharrezkoa denean elkarrekin hitz egin eta adostasunak bilatzen saiatzeko. Hala ere, **plan honek abiapuntutzat hartzen duen errealitatearen irakurketa onartezina iruditzen zaigu, eta beraz, ezin dugu gure gain hartu senide bezala**. Denon ekarpenekin parte-hartzeko baldintzak hobetu daitezkeela ziur gaude, eta beraz kontuan hartuak izango direla pentsatzen dugu, benetakoa eta sendoa den bake bat eraikitzen jakitea, jendarte heldu baten adierazle argia delako, eta **ondorengo belaunaldiek jendarte libreago bat merezi dutelako**.